



AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko uztailaren 26an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita bian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2018ko uztailaren 12an buruturiko saioari dagokion akta.

2.- A.M.I., Arroabeen bizikletak garbitzeko mangera bat jartzeko eskaera egiten du. Erabaki da jakinarazte ez dela egokia ikusten bizikletak garbitzeko mangera jartzea.

3.- A.A.S., Aizarnako errepidean eta plaza inguruan karga handiko ibilgailuek sortzen duten arriskuaren inguruko idatzia aurkezten du. Bertan diote azken hilabeteetan karga handiko ibilgailuen presentzia etengabea izaten ari dela Aizarnako errepidean. Zentzu horretan, eta herritarron eta seme-alaben segurtasuna bermatzeko, Udalarik neurriak har ditzala eskatzen diote: plazako jolasleku inguruan babesak jartzea, abiadura gutxitzeko koskak herrigunea, egunean zehar pasa daitezkeen kamioi kopurua zehaztea... Erabaki da jakinaraztea Aizarnako errepidean seinaleak jarrita daudela dagoeneko, plaza ixtea ez dela egokia ikusten, eta Udalak jarraituko duela neurri gehiago aztertzen.

4.- E.J.I., L.P. eta E.S., H. y M.A.S.L.U. enpresari aurkeztutako aldaketaren ez-funtzeskotasunaren jakinarazpenaren kopia aurkezten du. Erabaki da berri ematea.

5.- A.I.L.ri, Elizkalea 10eko fatxadan hainbat koponketa egiteko (kaskote solteak) obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

6.- K.L.ri, Zesareo Diaz kalea 3 eraikineko fatxadan konponketak egiteko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

7.- M.J.A.A., Zubimusu kalea 10aren aurrean lurzorua hondoratzen ari dela dio. Portal aurrean arrakala handia sortzen ari dela eta argazkiak aurkezten ditu. Erabaki da jakinaraztea udalak lurzorua begiratu duela eta aztertutako duela zer irtenbide eman daitekeen.

8.- I.U.B., lursaila sakabanatzea nahi duela, ukuilua segregatu nahi den lur-zatiaren barnean dago. Erabaki da segregatzeko baimena ematea, hainbat xehetasunekin.

9.- T.I., Sansinenea poligonoan dituzten AB SI-4 partzelako 1 eta 2 nabeen obra amaierako dokumentazioa eta aurretiatzeko komunikazioa aurkezten ditu. Erabaki da ontzat ematea aurkeztutako dokumentazioa eta jarduera baimenaren tramitazioa amaitu dela jakinaraztea.

10.- L.Z.I., G. kalea 3 behean zuten gazte lokaletik kanporatuak izan zirela eta,



irtenbidea aurkituko zuela agindu omen zuen Udalak eta erantzunaren zain daudela dio. Erabaki da Alkatea biltzea gazteekin.

11.- T.S.M, umeen parkean gauetan ume eta nerabeak oihuka ibiltzen direla dio. Erabaki da jakinaraztea udalak gai honetan ez duela eskumenik, baina dituen baliabideekin saiatuko dela arazoari irtenbidea aurkitzen.

12.-J.U.A., Lasaoko 21-030 partzelan, behi-aziendarentzako ukuilua egiteko exekuzio proiektua aurkezten du. Erabaki da exekuzio proiektua jaso izanaren adierazpena egitea.

13.- S.F.A., Alonderoneko aldapako igogailuaren 2. zertifikazioa aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea .

Batzorde informatiboan bileren akten onarpena

2018ko uztailaren 12an, Kultura eta Euskara Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko uztailaren 19an, Kultura eta Euskara Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko uztailaren 19an, Ogasun Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko uztailaren 12an, Auzoak eta Baserriak Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko ekainaren 19an, Sozioekonomia Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

Alkatetza ebazpenak- Honako Ebazpenen berri eman da:

* 113 zk, M.J.R.H.i Zestoako Baratze parkeko 39. zenbakidun ortua erabiltzeko lizentzia ematen zaio.

* 114 zk, T.S.A. enpresari behin-behineko bermea itzultzea, argiteri publikoaren energia zerbitzuak eta mantentze lanak emateko esleipenari dagokiona.

* 115 zk, UTE-A.yU.S.A.-E. M. enpresari behin-behineko bermea itzultzea, argiteri publikoaren energia zerbitzuak eta mantentze lanak emateko esleipenari dagokiona.

* 116 zk, S.I.C.E.S.A. enpresari behin-behineko bermea itzultzea, argiteri publikoaren energia zerbitzuak eta mantentze lanak emateko esleipenari dagokiona.

* 117 zk, M.S.A.k eginiko erreklamazioaren aurrean erantzunkizun patrimonialaren espedienteari hasiera ematea.

* 118 zk, M.K.Iribar. bitarteko funtzionario izendatzea udaltzainen udako oporrak ordezkatzeko.

* 119 zk, I.E. kontratatzea %100ean etxez-etxeke langileen udako oporrak ordezkatzeko.

* 120 zk, Agote AG.I.1 Areako Birpartzelazio proiektuaren barnean, aurkezturiko dokumentazioa tramitatu behar da.

* 121 zk, Iraetako Granero etxeke jabeari bi hilabeteko epea ematen zaio etxeke EIT



ZESTOAKO UDALA

azterketa aurkezteko.

* 122 zk, Karmengo Amaren errepidea 6 etxeko jabeari bi hilabeteko epea ematen zaio etxeko EIT azterketa aurkezteko.

* 123 zk, Arroagoiko Plazabarrena eta Kantoikoa etxeetako jabeari bi hilabeteko epea ematen zaio etxeko EIT azterketa aurkezteko.

* 124 zk, Arroabeko Lorazainaren etxeko jabeari bi hilabeteko epea ematen zaio etxeko EIT azterketa aurkezteko.

* 125 zk, S.G. bitarteko funtzionario izendatzea, brigadako peoi lanpostuan aritzeko.

* 126 zk, I.E. kontratatzea %89an etxez-etxeko langileen udako oporrak ordezkatzeko.

* 127 zk, J.M. kontratatzea %100ean etxez-etxeko langileen udako oporrak ordezkatzeko.

* 128 zk, A.A.ri udal jabetzako pista eta bideen erabilera berezia egiteko lizentzia ematea.

Galdera eta erreguak. Ez da egon

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

Idazkaria,

O.e

Alkateak,